

BESTELAKO XEDAPENAK

INGURUMEN ETA LURRALDE POLITIKA SAILA

389

EBAZPENA, 2015eko urtarrilaren 16koa, Garraio Azpiegituren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Oiartzunen, A-8 autobidearen drainatze-saretik datozen euri-urak ETSren tunelera ez sartzen uzteko proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda.

Oiartzunen, A-8 autobidearen drainatze-saretik datozen euri-urak ETSren tunelera ez sartzeko proiektua Garraio Azpiegituren zuzendariaren 2014ko abenduaren 18ko Ebazpenaren bitartez onartu zen.

A-8 autobidearen drainatze-saretik datozen urak direla-eta Oiartzunen, Donostiatik Hendaiara doan ETSren lineako –topoa– tunelean sortzen diren uholdeei irtenbide bat ematea da proiektu horren helburua.

Proiektuaren eraginpeko lurrak eskuratu eta ondasunak eta eskubideak kudeatu ahal izateko, proiektuan jasota geratu dira ondasun horiek guztiak identifikatzeko zerrenda zehatz bat eta desjabetzeen eranskinetako partzela-planoak.

Organo honek eskumena dauka Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren trenbide-azpiegituren lanak gauzatzeko nahitaezko desjabetze-prozeduraren izapideak egiteko eta ebazpena emateko, halaxe ezarrita baitago Ingurumen eta Lurralde Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 9ko 196/2013 Dekretuaren 14.1.c) artikuluan eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen abenduaren 15eko 20/2012 Dekretuaren 13.1.g) artikuluan. Azken dekretu hori, bestalde, martxoaren 1eko 8/2013 Dekretuaren eta, bigarren aldiz, abenduaren 2ko 34/2013 Dekretuaren bidez aldatu zen.

Trenbide Sektorearen azaroaren 17ko 39/2003 Legearen 6.2 artikulua arabera, trenbide-linea berriak jartzeko edo lehendik daudenak handitu edo zabaltzeko proiektuak onartzen direnean, eta, onespren horretan okupatu beharreko ondasunak zehaztuta daudenean, onesprenak berekin dakar –nahitaezko desjabetzearen eskakizunen eta prozeduraren ondorioetarako– proiektua bera eta horren gaineko aldaketak herri-onurakoak edo gizarte-interesekoak direla adieraztea, eta proiektuarekin batera doan zerrendan jasotako ondasun eta eskubideak lehenbailehen okupatu behar direla aitortzea.

Nolanahi ere, erasandako ondasunak eta eskubideak okupatu beharra proiektuaren onesprenak inplizituki berekin dakarren arren, Nahitaez Desjabetzeari buruzko Legearen 17.2, 18 eta 19.2 artikuluek ondasun eta eskubide horien xehetasunak jasoko dituen zerrenda egin eta jendaurrera atera behar dela ezartzen du, alegazioak eta datuak aurkeztu ahal izateko, hain zuzen ere okerrik baldin badago horiek zuzentzeko eta interesdunak zein diren ondo zehazteko.

Beraz, aipatutako xedapenak, horiekin bat datozenak eta aplikatu beharreko gainerakoak ikusirik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Oiartzunen, A-8 autobidearen drainatze-saretik datozen euri-urak ETSren tunelera ez sartzen uzteko proiektuak erasandako ondasun eta eskubideen zerrenda jendaurrean jartzea –ebazpen

honi atxikita dago zerrenda—, ebazpen hau azken aldiz argitaratzen den egunaren biharamunik aurrera kontatzen hasi eta hamabost (15) egun balioduneko epean alegazioak aurkeztu ahal izateko, hain zuzen ere okerrik baldin badago zuzentzeko, hala ezartzen baitute Nahitaezko Desjabetzeari buruzko Legearen 19.2 artikulua eta horrekin bat datozenek. Alegazioak Ingurumen eta Lurralde Politika Saileko Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzan aurkeztu beharko dira (Donostia kalea, 1 - Vitoria-Gasteiz).

Aipatu epean, ondasun eta eskubideen zerrenda Oiartzungo udaletxeko iragarki-oholean egongo da, nahi duenak aztertzeko.

Eta hala jakinarazten da, guztiek horren berri izan dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2015eko urtarrilaren 16a.

Garraio Azpiegituren zuzendaria,
MARÍA ALMUDENA RUIZ DE ANGULO DEL CAMPO.

2015eko urtarrilaren 27a, astearta

OIARTZUNGO UDALERRIA

OIARTZUNEN, A-8 AUTOBIDEAREN DRAINATZE-SARETIK DATOZEN EURI-URAK ETS-REN TUNELERA EZ SARTZEN UZTEKO PROIEKTUA

Finka-zenbakia	Katastroko erreferentzia	Jabea	Eragin mota (m ²):						Mota
			Okupazio iraunkorra		Aldi baterako okupazioa		Bide-zorra		
			OP	MP	OT	MT		SP	
20-063-01	Bidea/jabetza publikoa	Oiartzungo Udala	0	3	0	22	25	Hiri-lurra	
20-063-02	9196060	Oliden Echeveste, Antonio, Isabel, Juan eta José Domingo	40	0	184	0	248	Hiri-lurra	
20-063-03	9196031	Sarasola Michelena M. ^a Begoña	62	0	62	0	142	Hiri-lurra	
20-063-04	90004 Komunikazioen Sistema Orokorra	ADIF	0	0	0	748	496	Landa-eremua	
20-063-05	90033 Komunikazioen Sistema Orokorra	ETS	0	33	0	100	154	Landa-eremua	
20-063-06	90031 Komunikazioen Sistema Orokorra	Gipuzkoako Foru Aldundia	0	127	0	268	373	Landa-eremua	